

“Hazten ari naiz oraindik” Jon Maia



Ama Extremadura, aita Zamoratik, abuela ta abuelo haien aurretik. Horrela hasi zuen Jon Maiak 1997ko Bertsolari Txapelketaren finalean jendea erabat hunkitu zuen bertsoa. Aurreneko finala zuen Maiak, eta kanpotik etorritako familiarekiko zorra kitatzeko aprobetxatu zuen. Duela 33 urte Urretxun jaioa, txikitatik bizi da Zumaian. Hango ikastolan bertsozaletu zen. Azken urteotan, Karidadeko Benta taldearekin dabil kantari. Titiriteroen bandak

udazkenean kaleratu zuen bigarren diskoa (Amore, amore) eta ekainean Italiarako bidea hartuko du. Uda pasata, berriz, Euskal Herriko Bertsolari Txapelketarako prestaketari heldu beharko dio Maiak. Ana Unanue. Argazkiak: Amaia Zabalo.

Zuk esana da euskaldun berri eta euskaldun zahar hitzak baztertu egin beharko genituzkeela. Zergatik?

Ez dutelako inolako mesederik egiten. Euskaldun berri terminoa bakarrik erabili beharko litzateke estatistiketarako, bestela ez diot zentzurik ikusten pertsona bati bizitza osorako etiketa hori jartzeari. Beste hizkuntzetan ez dute bereizten hiztunak etxean ikasitakoak diren ala ez. Sekula ez dut entzun norbait ingeles berri edo espainiar zahar denik. Bereizketa hori absurdoa eta kaltegarria da, konplexu eta aurreiritzi asko sortzen duelako. Euskara dakienak badaki, eta kito. AEK-k eta oro har euskalduntze prozesuan parte hartzen duten taldeek pauso hori aspaldi emana beharko lukete. Euskaldun berri asko ikusten dut aurkeztu orduko barkamen eske bezala, zerbait txarra izango balitz bezala.

Bertsolaritza uztekotan egon zinen duela zenbait urte.

Krisialdia izan nuen 20 urte buelta horretan. Nik ikusten dut orain jende askok oso garbi daukala bertsolari izan nahi duela. Esango nuke gazte baino lehenago bertsolari direla. Baina bizitzak askotan gaina hartzen dizu, eta bertsolari baino lehenago gazte sentitzen zara. Nik bertsolari gazte bezala arrakasta lortu nuen, baina beste kezka eta bizipen batzuk etorri zitzaizkidan, bertsolaritzaren ginetik jarri zitzaizkidanak. Beste alde batetik, uste dut hura ez zela nire garaia. Nahiko bakarrik sentitzen nintzen, inguruan ez nuen lagun bertsozalerik, eta bertsolaritza oso urruti ikusten nuen nire mundutik. Ez nuen gozaten plazetan. Gero, denborarekin, oso urruti sentitzen nituen jendea eta giroa oso hurbil sentitu ditut. Nik uste 25 urterekin, Euskal Herriko finalean sartu nintzenetik, hasi nintzela bertsolari sentitzen. Finalera sartu eta gero konturatu nintzen zer den bertsolari izatea.

Eta zer da?

Bizimodu bat da. Ez da bertso bat egiten jakitea, ez da teknika bat menperatzea. Batetik, ia erabat horretara egon behar duzu. Harremanak gustatu behar zaizkizu; herriz herri ibiltzea ere gustukoa izan behar duzu, eta gaitasuna izan behar duzu komunikatzeko edozein publikoren aurrean, ez bakarrik zuri gustatzen zaizkizun giroetan.

Azken urteotan Karidadeko Bentarekin ikusi zaitugu kantari. Nortasun agirian zer ofizio jarriko zenuke?

Bertsolari jarriko nuke. Karidadeko Bentan ere oso bertsolari ikusten dut neure burua. Hasieran oso deseroso sentitzen nintzen, gogotsu baina aldi berean deseroso. Bertsolari batentzat bat-batean musikariekin koordinatuta kantatzea, tonua, erritmoak, postura aldaketa... dena oso desberdina da eta ikasi egin behar da. Orain ere ez naiz kantaria, nabari da nire kantakera oso bertsolari kantakera dela, baina gustua hartu diot eta uste dut neure estiloa topatu dudala.

Gorputza, hala ere, ez duzue gehiegi askatzen oholtza gainean.

Norberaren gorputzak egiten du sentitzen duena, eta nik ez dut sentitzen hor dantzan hasi behar naizenik. Niretzat nahikoa lan izan zen gure betiko babamakil postura horretatik ateratzea. Dantzaren gabezia hori beste gauza batzuekin betetzen dugu. Gustatzen zait publiko artera sartzea, publiko artetik abestea, bertsotan egiten ez diren gauzak egitea. Kontzertuetan asko hitz egiten dut, taldekideek esaten didate kantua baino luzeago egiten dudala azalpena, baina hori ere showaren parte da, eta jendeak eskertzen du komunikazio hori. Bertsoaren muga estuetatik kanpo prosa daukat, eta ez diot eusten nahi dudana esateko tentazioari.

Taldearen espiritua titiritero samarra da. Bat dator zure gaur egungo bizimoduarekin, edo ez da hain eroa?

Nik uste dut nahiko eroa naizela, izan, gero saiatzen naiz bizimodu ordenatu samarra izaten, bakarrik bizi ez naizelako, bi ume ditut jadanik. Baina erotasun puntu horri zor diot satisfazio asko. Ez dut ezer finkoa sentitu nahi, ez zait gustatzen mugak errespetatzea, bertsolari naizelako beti gauza bera egingo dudala pentsatzea. Beti pentsatu nahi dut ez dudala mugarik. Alde horretatik pribilegiatua sentitzen naiz, ate dezente ditudalako zabalik.

“Oso transzendentala naiz” zenioen duela zenbait urte. Urteen joanarekin, areagotu edo arindu egin zaizu joera hori?

Transzendentala naiz maila pertsonalean, harremanetan eta sentimenduetan. Bestela oso arin hartzen dut bizitza. Transzendentala naiz, adibidez, Euskal Herriarekin. Asko sufritzen dut inguruan gauzak gaizki daudenean. Euskal Herriak bizi duen egoera txikitatik oso barruan daukadan gauza da. Niretzat politika ere sentimendua da, ez dut bizi politika bezala. Nire ideiak ditut eta sentimenduak bezalakoak dira, nire jarrera ez dago gorabehera politikoen arabera. Ni beti leku berean egon naiz eta egongo naiz, eta ez egoskorra naizelako, baizik eta aita eta ama

aldatu ezin ditudan bezala, nire ideiak ere ezin ditudalako aldatu. Harreman sentimental eta pertsonaletan ere oso sentibera naiz.

Zorigaitza akuilua da sormen lanerako?

Agian bai. Azken hamar urteotan ezin izan dut poema bakar bat idatzi, eta emozionalki gaizki egon nintzen garaian idazten nituen etengabe. Egonkortasun emozionala lortu dudanetik neure borondatez ezin izan dut ezer idatzi; aitzakia batekin idazten dut bakarrik, edo eskatu didatelako, edo proiektu baterako, baina neure kasa, etxean, ez. Zorigaitza sormenerako egoera idealena izan daiteke. Hori bai, ni emozionalki ondo ez nengoen garaian bertsoetan ere ez nengoen ondo. Bertsolari bezala jarduteko bere garaian traba egiten zidan pertsonalki gaizki egoteak. Orain bertsolariagoa naiz eta badakit egoera horien gainetik kantatzen.

Maitasunaz zerbait ikasi duzu urteekin?

Lezio batzuk atera ditut, bai. Ikasi dut aurreiritzirik gabe jokatzeko; nik lehen pertsona ideal bat nuen buruan, eta uste nuen ideal horretatik kanpo ez nuela ezer nahi. Gero bizitzak erakutsi dit ez dela idealizatu behar ezer. Beste lezio bat izan da ikastea ezer ez dela betiko. Edo beharbada egon daiteke zerbait betiko, baina niretzat betiko ziren gauzak erortzen ikusi ditut. Horregatik, ikasi dut burua eta bihotza zabaltzen nire estereotipoak gainditzeko. Lehen erabat erromantikoa nintzen, eta orain ere banaiz, baina ez ditut gauzak lehen bezala idealizatzen.

Txapelketa urtea dugu. Hasi zara horretan pentsatzen?

Hasi da agertzen, baina asko falta da oraindik. Zenbait bertsolari egina dute urtearen plangintza bat, prestaketa plangintza bat, baina nik ikasi dut gauza hauekin ez obsesionatzen. Bertsolari batentzat asko da jokoan dagoena, hori ere egia da; badago estatus bat defenditu behar dena, eta gora salto bat egiteko aukera ere bai, baina uste dut ez zaidala komeni obsesionatzea. Egingo dut lanketa uda pasata; lanketa tekniko baina gehiago, txapelketari aurre egiteko egoera psikologiko egokia bilatzea da nire asmoa.

Zeintzuk dira zure indarguneak eta zure ahuleziak txapelketari begira?

Nire indargunea, batetik, anbizioa eta lehia gustatzen zaidala. Ez naiz inoiz txapelketen kontrakoa izan. Gustatzen zait lehia, motibatu egiten nau. Horrez gainera, alde dut oraindik hazten ari naizela; ez dut sentitzen topea jo dudanik, eta, egia esan, oraindik ez zait atera txapelketa bat benetan bete izan nauena. Zain nago, eta beharbada aurtengoa izan daiteke. Kontra, berriz, kontrarioak dauzkat.

Nabarra aldizkarian irakurri dizugu: "Gure gizartea gutxienez bi zati agerikotan banatuta dago: euskaldunak eta gure kultura, eta espainiarrak eta berea. Tartean, amildegia. Bere garaian inork zubirik eraiki ez zuelako". Emigrazioarekin lotzen duzu gatazka politikoa?

Bai. Duela 50 urte inguru Espainiatik hona egon ziren emigrazio masibo horiek zirela eta hanka sartze handiak egin ziren, eta ez arkitektonikoak bakarrik. Milaka pertsona etorri ziren, gehien-gehienak bere gogoaren kontra. Bertold Brechtek dio bere herritik behartuta ateratzen dena ez

dela etorkina, desterratua baizik. Espainiako beste herrietatik goseak, pobreziak behartuta etorri ziren, eta gerra galduta asko eta asko. Nire aiton-amonak horrela etorri ziren, eta sartu zituzten herritik kanpoko auzo batean, beraientzat egindako etxe batzuetan, pixka bat animalia edo bigarren mailako pertsonak balira bezala. Ez zen egon inolako zubirik edo estrategiarik pertsona horiek gizarteratzeko. Haiek ez zekiten nora zetozen ere. Erraza da jende horri esatea euskara ikasteko, baina gauzak ez dira teilatutik hasten. Lehendabizi erakutsi beharko diegu nora etorri diren, nortzuk garen, lan baldintza txukun batzuk eskaini... Bizitzeko lehendabizi janaria dago, eta gero hizkuntza, nire ustez.

Hanka sartze hura berriz gerta daiteke egungo etorkinekin?

Bai, nik ez dut ikusten estrategiarik kanpoko jendea gizarteratzeko. Lehen haustura sozial hori gertatu zen, eta orain ere gerta daiteke. Ez zaizkie gauzak errazten, inondik ere. Euskaraz ikasten duten etorkinen portzentajea oso txikia da, % 4-5ek bakarrik bidaltzen dituzte umeak D eredura. Geratzen dira sektore horiek bazterkerian eta nostalgian, bereari eusten. Zergatik dira espainiar gehienak PPkoak edo PSOEkoak eta euskaldunak alderdi abertzaletakoak? Alde batera normala da gehiago izatea, baina duela 50 urte etorritako jendea da, gurea hirugarren belaunaldia da. Gure familian hirugarren belaunaldikoak, ni eta lehengusuak, euskaldunak gara, baina gure gurasoek aukera pertsonal bat egin zutelako. Hiru urterekin ikastolara bidali gintuzten eta beraiek ere euskara ikasi zuten, baina inork ez zien bidea erraztu. Erabaki horiek ezin dira jendearen kontzientziaren menpe utzi; baldintza estrukturalak eskaini behar zaizkie, eta nik ez dut halakorik ikusten inguruan.

KOLKOTIK

Zerk alaitzen dizu eguna? Nire alabek.

Zerk ateratzen zaitu zure onetik? Nire alabek ere bai.

Zerk lotsarazten zaitu? Nire zenbait utzikeriak.

Zerk ematen dizu beldurra? Guardia Zibilak.

Eta barregura? Oso erraz egiten dut barre.

Eta negargura? Errazago egiten dut negar pozagatik, emozioz.

Zumaia: nire txokoa.

Itsasoa: begiratzera joaten naizen ispilua.

Piratak: izan nahiko nuke. Haurtzaroa: oraindik ez zait bukatu.

Andoni Egaña: lehenengo laguna, eta ondoren bertsolari onena.

Maialen Lujanbio: laguna ere bai, eta bertsolari onena izan daitekeena.